

2025eko borrokari esker, EAEko hezkuntza publikoko irakasleak %2,5eko igoera jasoko dugu iraileko nominan

Irakasleok 2025eko mobilizazio eta grebetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiriburuetak kaleak aldarriz bete genituen, eta indar erakustaldi handia egin genuen.

Argia izan zen gure mezua: hezkuntza publikoan aritzen garen langileen lan-baldintzak hemen erabaki behar dira. Eta lortu genuen.

Hezkuntza publikoa indartzeko baliabideak lortzeaz gain, 15 urteren ondoren, irakasleok **soldata %7 igotzeko akordioa** lortu genuen. Igoera hori hiru urtetan gauzatuko da, berariazko osagarri orokorraren bidez, "2104 BO Z. Publik. Irakask. Konplex." kontzeptuan, hain zuzen ere.

Iazko %2ko igoerari **%2,5eko igoera** gehituko zaio **2026/27 ikasturte honetan**, eta igoera hori iraileko nominan hasiko gara jasotzen.

Datorren ikasturtean, berriz, **beste %2,5eko igoera** jasoko dugu. Horrela, 2025ean lortutako akordioari esker, %7ko igoera metatua izango dugu hiru urteko epean.

Bestalde, Espainiako Gobernuak eta sindikatu zentralistek, borrokari uko eginda, estatu osoko langile publikoentzat lau urterako %11ko igoera adostu zuten iaz.

LABen iritziz, Euskal Herriko langileen lan-baldintzak ez dira Madrilen edo Parisen erabaki behar, baizik eta negoziazio-eremua Euskal Herrira ekarri behar da. Ildo horretan, pasa den ikasturtean LABek, gehiengo euskal sindikalismoarekin batera, martxoaren 17ko Greba Orokorra deitu zuen, urte luzeetan aldarrikatutakoa erdigunean jarritz: **gutxieneko soldata propioa Euskal Herrian erabakitzea**.

URTEA	LAN HITZARMENA 2025	ESTATUKO IGOERA	GUZTIRA
2025	+ %2	+ % 2,5	+ % 4,5
2026	+ % 2,5	+ % 1,5-2	+ % 4-4,5
2027	+ % 2,5	+ % 4,5	+ % 7
2028	-	+ % 2	+ % 2
GUZTIRA	+ % 7	+ 11 %	+ % 18

Soldatak ez ezik, bertako **langile publikoen lan-baldintza guztiak Euskal Herrian negoziatu eta adostu behar dira**.

LABek Jaurilaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Madrilen ordezkariak duten euskal alderdiei **hitzetatik ekintzetara** pasatzeko eskatzen die. Euskal Herriko langileen lan-baldintzak, enplegua eta soldatak hemen erabaki ahal izateko, beharrezko neurriak adostu eta Aurrekontu Orokorretan txertatu behar dira.

2025eko borrokaren fruitua da gaurko %2,5eko igoera. Eta bide horretan sakontzea dagokigu: **hemen bizi, hemen erabaki**.